ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 11, asteazkena • 130 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

734/2026 Erabakia, azaroaren 3koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Urabaingo Kudeaketa Batzordeko kide guztiak izendatzea

2026ko otsailaren 13an, Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak foru aldundiari jakinarazi zion Urabaingo Administrazio Batzarrean hiru postu huts zeudela, Eduardo Urteaga Díaz de Garayok, Iñaki Urteaga Díaz de Garayok eta Judith Soto Rodríguezezk uko egin izanaren ondorioz. Izan ere, lehendakari eta lehenengo eta bigarren bokal karguak zituzten, hurrenez hurren. Lanpostu huts horiek ezin izan dira bete ordezko hautetsien faltagatik.

Horretarako, Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak kudeaketa batzorde bat eratzeko eskatu zion Arabako Foru Aldundiari. Batzorde horretako kide izan behar zuten Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko uztailaren 10eko 17/2026 Foru Arauaren 11. artikuluan jasotako hautaezintasun eta bateraezintasun kausetan sartuta ez zeuden hautesle guztiek.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren martxoaren 2ko 118/2026 Foru Aginduaren bidez, eta bat etorriz aipatutako foru arauaren 24. artikuluaren bigarren apartatuan xedatutakoarekin, Urabaingo Administrazio Batzarrari eskatu zitzaion kudeaketa batzordea osatu behar zuten pertsonak proposa zitzala hutsik zeuden plaza guztiak betetzeko.

Aterako den administrazio batzarrak behin eta berriz uko egin zionez auzo batzar baterako deia egiteari, Asparreneko Udalaren laguntza eskatu zen, administrazio publikoen arteko lankidetza printzipioaren babesean, zeina Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.k) artikuluan jasota baitago. Lankidetza horren helburua zen, udal idazkaritzaren bitartez, behar zen laguntza ematea auzo batzar baterako deialdia egin ahal izateko, legezko berme nahikoekin, kudeaketa batzordeko kargu hutsak betetzeko pertsonen proposamena egin ahal izateko.

Korporazioko idazkariak 2026ko urriaren 7an emandako eta hil bereko 16an foru aldundi honetan aurkeztutako ziurtagiriaren bidez, egiaztatu zen Urabaingo Kontzejuko auzo batzarrak, 2026ko urriaren 7an, gehiengo osoz erabaki zuela Alazne Jiménez de Vicuña Calvo proposatzea kudeaketa batzordeko lehendakaria izateko, bai eta Víctor Jiménez de Vicuña Calvo eta Nahia Jiménez de Vicuña Calvo ere, organo horretako lehenengo eta bigarren bokalak, hurrenez hurren.

Horri dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko uztailaren 10eko 17/2026 Foru Arauaren 24. artikuluaren hirugarren apartatuak ezartzen duenez, proposamena jaso ondoren, dagokion ebazpena emango da bizilagun horiek kargu hutsak bete ditzaten izendatzeko, kasuan kasuko lehentasun ordenaren arabera.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuak eta 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak sail honi esleitzen diote, besteak beste, kudeaketa batzordeen egiteko, kudeaketa eta izendapenarekin lotutako prozedurak kudeatzea, hala badagokio.

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.2.a) artikuluari eta 24.5 artikuluari jarraikiz, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Bat etorriz Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko uztailaren 10eko 17/2026 Foru Arauaren 24. artikuluaren hirugarren apartatuan xedatutakoarekin, honako pertsona hauek izendatzea Urabaingo Kudeaketa Batzordeko kide:

- Lehendakaria: Alazne Jiménez de Vicuña Calvo.
- 1. bokala: Víctor Jiménez de Vicuña Calvo.
- 2. bokala: Víctor Jiménez de Vicuña Calvo.

Bigarrena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak erabaki hau ALHAOn argitara dezala, eta Urabaingo Administrazio Batzarrari, Asparreneko Udalari eta Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeari helaraz diezaiela.

Hirugarrena. Jakinarazten zaizun erabaki hori behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango duzu zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorriz Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Nolanahi ere, aurrez aukerako errekerimendua egin ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 3a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JAVIER GORBEÑA GARCÍA

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.11 06:53:27 Z